



ELKARRIZKETA: ANTIXON MENDIZABAL, IRAKASLEA

# Arrasate

P R E S S

1998ko  
Irailak 18  
420. zenb.

## Lapurrak ehizan

IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • KIROLAK: OSKAR ASKASIBAR  
EUREN IKUSPUNTUTIK: XABIER ZUBIZARRETA • KULTURA: INES ETA NAIARA





**Zeramika  
erakusketa  
eta salmenta**

Uribarri Etorbidea, 22-B  
Tel.: 943 79 81 80 • Faxa: 943 79 81 80  
**ARRASATE**



**SAIOA GIMNASIOA**

**BERRIKUNTZA  
ARRASATEN**

Umeentzako aerobic-a!

**Aerobic mailak**

- Umeentzako aerobic-a
- Hasiberrientzako aerobic-a
- Aurreratuentzako aerobic-a

*Iragarki hau  
SAIOAra ekarrita,  
aerobic saio bat  
dohainik!*

Astelehenetik ostiralera,  
goizez eta arratsaldez

**Aerobic programa:**

- High-Low Impact
- Funky
- Salsa
- Step
- Tonifikazioa

Kontzezino, z/g, tunela  
(Arrasate Kirolak-en atzealdean) •  
ARRASATE • Tel.: 943 79 97 31



**Irakasleak:**  
Beatriz Rubio  
Jon Aranbarri  
Izar Gomez  
Nerea Mata

**Orain gainera, aerobic egiteko lurzoru berezia jarri dugu.**



# Zer deritzozu ETAK garri duen su etena

## Tuttologo

italianoek "tutto" esaten dute guztia/dena adierazteko. Eta Italian asmatutik "tuttologo" hitzak denetaz dakiena —edo behintzat orotaz ari dena— izendatzen du.

Aspaldian komunikabideak tuttologoz bete dira. Irrati eta telebistetan horrenbeste ugaldu diren tertulietan suelto-suelto jarduten dute edozein gaitaz. Eta hori gai askotan kaleko edonor baino arruntago diren arren. Prentsa idatzian ere gertatzen da fenomeno hau. Arloren batean nabarmen izan denari, samur ematen zaio maiztasun jakinez eta gai librean zutabe edo artiku-



Mikel Irizar

**"Hara non, neu ere, gura barik, tuttologoa bihurtu naizen"**

luak idazteko aukera. Kasu honetan, badirudi idazteak gehiago pentsarazi beharko lukeela. Idazkia gehiago lantzerara behartu. Baina hori ez da beti gertatzen.

Kontua da hor ditugula *tuttologoak* pontifikatzen "huntaz eta hartaz", berdin gaia ondo ezagutzen badute edo erdizka bakarrik. Arrakasta izango dute, noski, ze oro har ez dirudi fenomenoak gainbe-

hera doanik.

Eta hara non, *Arrasate Pressen* aldaketa bat medio, lehen talde handiak egiten zuen *Ikuspegi* hau, orain lau lagun artean egin behar dugun. Horrek esan nahi du lau astetik behin artikulua,

gai librean..., neu ere *tuttologoa* bihurtu naizela!

Hasierako sustoa pasatu ondoren, eta nola *tuttologo* batzuen lana ez dudana oso gustuko, hona hemen zer pentsatu dudana, besteengan ikusten ditudan akatsak ahal dudana heinean saihesteko. Lehenik, ematen ditudan datu, iritzi edo susmoak elkarren artean ondo bereizten saiatuko naiz, irakurleek jakin dezazuen zer den zer. Bigarren, aldizkariak ematen didan pulpito honetatik erasoak baino gehiago ekarpenak egin nahiko nituzke, eta beti, erasorik egonez gero, ondoren ekarpena. Eta azkenik, ez nuke bakardadean jardun nahi. Beraz, nahi duzuenen bada-kizue non nagoen.

Hori guztia esan eta gero, *tuttologo* bati itsu-itsuan jarraitu barik, hainbatean jaso eta zuena egingo duzuela agintzen badidazue, benetan diotsuet, lasaia-go arituko naizela. ■

*"Lastertasun Handiko Trenaren proiektua dagoenetan egiten bada, kalteak izugarriak izan litezke Lezetxikiko kobaren inguruetan"*

Alvaro Arrizabalaga

# 3.754

**arrasatearrek ez dute botoa emateko eskubiderik**

Urriaren 25ean egingo diren hauteskundeetan 20.503 mondragotarrek izango dute botoa emateko eskubidea. Kontuan izanda 24.257 lagun bizi gara haren, horrek esan nahi du 3.754 lagun daudela 18 urte-tik beherakoak. Zer adin piramide mota irten liteke zenbaki horiekin?

Z E R D E L A E T A ?

### Arizmendiarieta aldareetara?

Jesus Larrañagak "Interioridades de una Utopía" bere azken liburuan agertzen duenez, On Jose Maria Arizmendiarietaren santutasuna behin eta berriro agertzen omen da Alfonso Gorroño goitiaren hitzetan.

Abade markinarra ezagutu zuten zenbait lagunek ere beatifikazioaren biderei ekitera bultzatzen omen dute Alfonso. "Inoiz ez diet barkatuko haren lagunei beatifikazioari ez ekin izana", idatzi zuen Otarorako ohorezko liburuan Jose Luis del Arco Alvarezek. Hala ere, Alfonsok zalantzak ditu, edonor beatifikatzeko jende asko behar delako atzean, diru mordo eta kristauen artean gogo bizia proiektua aurrera eramateko. Horregatik, zail ikusten du oraingo proiektu hori aurrera eramatea. "Akaso berrogei urte barru besteren batek...", esaten du.



**ARRASATE KOMUNIKABIDEAK**

**ARRASATE PRESS**

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otarola kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40  
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marjo Deogracias, Marian Porcel, Maider Osa. **Publizitatea:** Kaittin Allende, Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administratzailea:** Agurtzane Gaiñzarain (Tel.: 943 79 02 26)  
**Diseinua:** Txos Azurmendi. **Asteburuetako berriemakaldea:** Lierni Urbarren. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxebarria, Marta del Campo, Iban del Campo, Iñaxo Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Aguirre, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenkoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, ASA Italde, Eneko Allende, Besaide M. E., Kamelo Urbarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa ardura:** duna: Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28).  
© ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko konzentratua.**  
**Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Ignacio Perez.



Arrasateko Udaleran laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundirean laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza



## GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 18**  
•Gaeuz: Ruiz, Maala
- Larunbata, 19**  
•Gaeuz: Morales, San Andres
- Igandea, 20**  
•Gaeuz: Azkoaga, Ferrerias
- Astelehena, 21**  
•Gaeuz: Español, Iturriotz
- Asteartea, 22**  
•Gaeuz: Korkuera, Musakola
- Asteazkena, 23**  
•Gaeuz: Irizar, Erguin
- Osteguna, 24**  
•Gaeuz: Amezua, Santa Marina

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**Eritetxeak**  
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 79 53 00  
Iguatorialdea ..... 943 79 05 00  
Santa Agedako Ospitalea  
(gizonak) ..... 943 79 39 00  
(emakumeak) ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua. 943 79 90 11

**Gurutze Gorria**  
Bergara ..... 943 76 55 76

**DYA**  
Antzuola ..... 943 78 71 57

**Anbulatorioak**  
Arrasate (Larrialdiak) ... 943 79 13 57  
• Txanda hartzeko: medikuntza  
orokorra eta pediatria 943 77 03 46  
• Espezialitateak. .... 943 77 05 78  
..... 943 77 12 64  
Oñati ..... 943 78 08 52  
Eskoriatza ..... 943 79 98 58  
Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
Aramaio ..... (945) 943 45 51 16

**Anbulantziak**  
Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44

**Udaltaingoa**  
Oñati ..... 943 78 04 11  
Bergara ..... 943 76 14 69  
Arrasate ..... 943 79 14 39  
Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
Eskoriatza ..... 088

**Ertzaintza**  
Arrasate ..... 943 79 71 99

**Suhiltzaileak**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

**Matxurak**  
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ... 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
..... 943 79 78 44  
..... 943 79 76 78

**Garraioak**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza. 943 79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
KIUB-OMIC ..... 943 79 51 55

**Monterron liburutegia**  
Monterron ..... 943 77 01 05

**Irratia**  
Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

## URRIAREN 25ean BASERRITARRON AHOTSA

**U**rriaren 25a dugu Eusko Legebiltzarra aukeratzeko eguna. Euskadiko herritarren borondatea ordezkatzeko duten pertsonak hautatzeko eguna.

ENBAren ikuspegitik, hauteskudeotatik aterako den Legebiltzarra eta ondorioz, osatuko den gobernua benetan erabakigarriak izango dira baserritarrontzat. Gure ustez, bai Europan bai munduan nekazaritza politika aldaketa sakoneko uanean daude eta oso garrantzitsua izango da ideia garbiak izanik, politika ausarta bultzatzea.

Aldaketa ugari eta sakoneko une honetan, baserritarrok behar duguna lasaitasuna eta egonkortasuna da eta ildo honetatik datoz gure bi lehen aldarrikapenak; hau da, nekazaritza politikaren ildo nagusiak markatzen dituen 1997-2000 Plan Estrategikoren errespetua, bere epeak agortu arte behintzat, eta bigarrenik, onartu berri den Landa Garapenerako Legearen gauzatzea, urrats geldo baina sendoak emanez.

Egungo egoera ikusirik, gero eta nabarmenago azaltzen da, Europako Batasunaren indarra eta, honenbestez,

gure ustean, datorren agintaldian, Europatik finkatzen den politika nola egokitu eta handik datozen dirulaguntzak nola banatu behar diren erabaki beharko da.

Europarekin jarraituz, basogintza bere lekua eske dabil eta urrats garbiak ematen ari dira basogintza politika baterantz, baina gure ustez, basogintza politikak larre zelaiak birlandatzeko politikak baino askoz zabalagoa izan beharko luke eta, nola ez, baserritarrok natura eta ingurunea gordetzen egiten dugun lan eskergaitza babestuko duten laguntza "agroambientalak" ezarri eta ingurugiro aldetik gutxieneko baldintzak errespetatzen dituzten baserri guztietara zabaltzea beharko lirateke.

Europatik etxerantz etorri gero, bada bai, hemen eman daitekeen hainbat konponbide, hala nola gure gizarte moderno honek beharrezkotzat jotzen dituen azpiegiturak nekazaritza-lurrean duen eragina gutxiesteko duten lur antolamendua eta, bestetik, lur sailen mugikortasuna bizkortzeko duen bitartekaritza-ko erakundea sortzea. Azpiegiturak lur asko jaten dute, baina zer egiten dugu alferrik galtzen eta sasiak jaten ari diren

hainbat lur sailekin?

Lurra eta gizakia dira benetako zutabeak edozein jardueratan eta gurean ere, ezinbestekoa dugu alde bategatik sektorea gaztetzea eta orain arte hainbesteko lana egin duten emakumeen lana legez aitortzea. Biei irtenbidea eman nahi badiegu, ezinbestekoa izango da hain motza gertatzen den nekazaritza gizarte segurantzaren aldatzea eta gaurkotzea. Ez da, ez, Eusko Jaurlaritzari zuzenean dagokion gaia, baina bere bultzada eta partehartzea zeharo erabakigarria izan daiteke.

Ezin bukatu gaurko esku-titz hau, gure azpiesektoreen egoera aipatu gabe. Oso garrantzitsutzat jotzen dugu geure produkzioari partehartzea sustatzea eta bestetik, kalitatean oinarritutako gure produkzioa arriskutan jartzen duen "galera duen salmenta" sistema ezabatzea.

Hauetako, labur-labur azalduta, ENBA sindikatuak agintaldi berrirako dituen lehentasunak. Bada beste hainbat gai aipatu gabe gertatu direnak, baina laburra izateak ere bere abantailak dituelakoan, agurtzen naiz.

*Jon Arruti Olazabal*  
ENBA Sindikatuko  
lehendakaria

*Sili Sili*  
**Martxa eta estilo handiko arropa**  
Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 79 81 82

**UGARAN**  
**jatetxea**  
Garagartza auzoa  
Tel.: 79 76 58  
ARRASATE

**M**  
**MEMESA**  
Industria hornidurak  
Tel. 71 24 25



# Zer deritzozu ETAk iragarri duen su etenari?

*ETAk su eten mugagabea aldarrikatu du.*




**Ana Mari Axpe**  
(52 urte)  
Etxekoandrea

Oso ondo ikusten dut. Gustatuko litzaidake benetan egia izatea eta bide horretatik aurrera egitea itsu-itsuan.



**Antxon La Hera**  
(39 urte)  
Laguntzailea

Oso ondo dago. Interesatzen zait. Ea aurrera egiten duen, hori baita garrantzitsuena, aurrera egitea.



**Antonio Gonzalez**  
(74 urte)  
Erretiratua

Ondo, aprobetxatu egin behar da. Badutesperantzarik.



**Cristina Duque**  
(36 urte)  
Ile apantzailea

Ez dut ezer entzun, baina horrela bada, oso ondo deritzot.



**Elena Lete**  
(33 urte)  
Udal langilea

Esperantza handia izan behar dugu. Ikusiko dugu nola segitzen duten. Printzipioz esperantza handia izan behar dugu.



**Valentin Martinez**  
(68 urte)  
Erretiratua

Ez dakit ezer, baina onerako bada, ondo deritzot.



**Antonio Frutos**  
(76 urte)  
Erretiratua

Eurek ikusiko dute zeregiten duten. Ez dakigu onerako izango den, baina horrenbeste urte daramagu berdin...



**Lander Etxabe**  
(27 urte)  
Langilea

Oso ondo iruditzen zait. Ateak zabalik daude bakebideari ekiteko.

**OPEL**

**Marka guztien konponketa eta zerbitzu osoa**

**BASABE POLIGONOA, A-13 PABILIOIA**  
Tel.: 943 79 62 65/943 79 20 86  
Faxa: 943 77 16 20

**AGENTZIA OFIZIALA**

## ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Izan zaitez zure osasunaren lagun.  
Horretan guk lagunduko dizugu.

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34



# Arrasate

## LANAK

### MUSAKOLAN

Asfaltatze eta konpontze lanak A-20 eremuan.

### AZATZA ETXEETAN

Monterron-Musakola pasealekuko lanak.

### ARRASATE PASEALEKUAN


Pasealekua konpontzeko lanak.

### OTALORAN

Pilotalekuaren lanengatik kamioiak arituko dira.


### URIBARRIN

Uriburu kalean eskailerak egiten ari dira. Astebetez barrakak egongo dira.




**Biztanleak: 24.257**  
**Eremua: 33 Km<sup>2</sup>**  
**Garaiera: 211 metro**

## Eguraldiaren aurreikuspena



**OSTIRALA 18**

Ostarteak ager daitezke eta tenperatura ere igo egingo da. Haizeak Ekialdetik joko du.



**LARUNBATA 19**

Lainoak eta ostarteak tartekatuko dira. Aurreko egunean bezalako tenperatura izango dugu.



**IGANDEA 20**

Ez da aldaketa handirik izango. Ostarteak eta lainoak izango dira egun osoan zehar.

## Ilargia



**Ilberria**

Igandean, Kandida, Felipe eta Eustakioren egunean, ilberria izango dugu.

## Mezak

### Parrokia

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

#### Igandean:

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

#### Igandean:

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (erdaraz)

19:00 (elebiduna)

### Uribarri

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

#### Igandean:

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

### San Andres

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

#### Igandean

10:00 (erdaraz)

11:00 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

### Santa Teresa

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

#### Igandean


10:30 (erdaraz)

11:30 eta San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

**Urkuluko uraren maila**

**%80,5**



## Distantziak


### Arrasate

|       |        |            |       |         |          |         |        |        |       |  |  |  |
|-------|--------|------------|-------|---------|----------|---------|--------|--------|-------|--|--|--|
| 121   | Baiona |            |       |         |          |         |        |        |       |  |  |  |
| 690   | 579    | Bartzelona |       |         |          |         |        |        |       |  |  |  |
| 57    | 170    | 620        | Bilbo |         |          |         |        |        |       |  |  |  |
| 1.159 | 1.038  | 2.883      | 1.207 | Brusela |          |         |        |        |       |  |  |  |
| 72    | 50     | 529        | 119   | 1.088   | Donostia |         |        |        |       |  |  |  |
| 40    | 180    | 530        | 66    | 1.206   | 118      | Gasteiz |        |        |       |  |  |  |
| 107   | 120    | 437        | 159   | 1.180   | 92       | 93      | Iruñea |        |       |  |  |  |
| 391   | 519    | 621        | 395   | 1.556   | 469      | 351     | 407    | Madril |       |  |  |  |
| 864   | 743    | 1.113      | 911   | 296     | 792      | 910     | 884    | 1.260  | Paris |  |  |  |



# Euskal dantzak

- Lore Gazteak dantza taldearen eskutik.
- Urriaren 9tik Santamasak arte.
- Ostiraletan, 19:00 - 20:30.
- Matrikula: 1.000 PTA.



## dantza ikastaroak

# Karibeko dantzak



- a) **Hastapen maila**  
urriak 5 - azaroak 9
- b) **Sakontze maila**  
azaroak 11 - abenduak 16

- Iralaskea: Julio Lantigua.
- Ikastaro egunak: astelehen eta asteazkenak.
- Ordutegia: 19:30 - 21:30
- Tokia: Musakolako Saloia.
- Matrikula: 4.000 PTA / 2.500 ikasle eta langabetuentzat.

Berri gehiago eta izen emateak:  
Gazte Bulegoan tel. 943 77 00 65



# 18 ostirala

■ ZINEA

Godzilla, Alai Zineman, 22:00etan.

■ BERTSO JAIALDIA

Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Jon Sarasua, Jesus Mari Irazu, Ainhoa Agirrealzaldegi eta Maialen Lujanbio arituko dira Bergarako Novedades zine aretoan. Jaialdia gaueko 22:30etan izango da eta sarrera 1.000 pta. kostako da. Jardun euskara taldeak antolatutako bertso saioa, Joxerra Gartzia zuzenduko du.

■ OMENALDIA ARTZAINEI

Euskal Artzainari Monumentua inaguratuko dute, eguerdiko 12:00etan Urrintxo deritzan parajea, Arantzazuko Santutegirako bidean, Oñatin. Eskultura Nestor Basterretxeak egin du.

# 22 asteartea

■ ZINEA

Godzilla, Alai Zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

# 19 larunbata

■ ZINEA

Godzilla, Alai Zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ MIKEL LABOA

Laixan Oñatiko euskara taldeak Mikel Laboaren emaldia antolatu du. Gaueko 22:30etan izango da, Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Sarrera 1.200 pta. kostako da.

# 20 igandea

■ ZINEA

Godzilla, Alai Zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

# 21 astelehena

■ ZINEA

Godzilla, Alai Zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

# 23 asteazkena

■ EUSKAL HERRITARROK

Xabier Zubizarreta eta Arnaldo Otegi, Euskal Herritarrok taldearen aurkezpena egingo dute. Ekitaldia Monterron Jauregian izango da, arratsaldeko 19:30etan.



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien  
sorkuntza.**

**Lorazaintzako  
mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza  
hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



# 24

## osteguna

### ■ BAIETZ PLATAFORMA

EGIN egunkariaren eta irratia inguruan gertatutako salatze eta modu egokian erantzun ahal izateko, Baietz fundazioa sortu da. Fundazioaren eta komunikazio proiektu berriaren aurkezpena egiteko, Martin Garitanok, *Euskadi Información* egunkariko zuzendariak, hitzaldia eskainiko du. Ekitaldia udaletxeko pleno aretoan izango da, arratsaldeko 19:00etan.

### ■ GAZTE EKIMENA

Euskal Presoak Euskal Herrira Gazte Ekimenak bilera deia egin du arratsaldeko 19:30etarako. Bilera AEDn izango da eta nahi duen guztiari egiten zaio deia.

### ■ LIZASO ETA EGAÑA APOTZAGAN

Irailaren 26an hasiko dira Eskoritzako Apotzaga auzoko jaiak. Egun horretan bertso afaria egingo da 20:30etan. Hori dela eta, afarira joan nahi duten guztiek, irailaren 20a baino lehen eman beharko dute izena Auzo Etxe elkartearen edo 943 71 47 51 zenbakira deituz. Bertso afarian Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña egongo dira.

### ■ MUSIKA ESKOLA

Jesusi Etxebarria Musika Eskolak irailaren 30a arte izango du zabalik matrikulazio epea. Solfeo, abesbatzako kantua, akordeoia, gitarra, txistua, flauta eta piano eskolak eskaintzen dira. Interesatuak arratsaldero 17:00etatik 21:00etara pasa daitezke Iturriotz Kaleko 32. zenbakitik edo 943 79 17 67ra deitu.

### ■ IGERIKETA EGOKITUA

Buru, gorputz edo zentzuzko desgaitasuna duten pertsonen zuzendua EGOKIROLEK eta AUKEAK, igeriketa egokitu zerbitzua jarri dute martxan. Ikasleentzat zein helduentzat da ikastaroa. Interesatuak Musakolako igerilekura jo dezakete. Hirugarren adinekoentzako igeriketa ikastaroak ere antolatuta dituzte. Bestalde, Jarduera Fisiko Terapeutikoa ikastaroa

hasi da Musakolako kiroldegian. Bizkar hezurreko min eta patologia dituztenei zuzendua. Kiroldegiko medikuaren jarraipena izango dute.

### ■ TRIKITILARIEI DEIA

Arrasate Trikitixa Eskolak ikastaro berria hasiko du urriaren 5ean. Hori dela eta, izena eman nahi dutenek, irailaren 21etik 24ra dute astia arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Gogoratu izena ez emateak borondatezko baja dakarrela.

### ■ CC00en ERAKUSKETA

"Elkartasun mundua nahi dugu" erakusketa jarri du ikusgai CC00k. 50 irudiren bitartez bestelakotasunari eta bazterkerari buruzko ikuspegiak erakusten ditu erakusketak. Irudiak CC00en egoitzan egongo dira, irailaren 30a arte.

### ■ BEGIRALE TITULUA

Txatxilipurdik begirale titulua eskuratzeko ikastaroa antolatu du. Matrikula epea irailaren 26a arte egongo da zabalik. Ikastaroa urtik maiatza bitartean eskainiko da.

### ■ JESUSI ETXEBARRIA MUSIKA ESKOLA

Irailaren 30a arte egongo da zabalik Jesusi Etxebarria musika eskolaren matrikulazio epea. Izen ematea

17:00etatik 21:00etara egin ahal izango da Iturritz kaleko egoitzan edo 943 79 17 67 zenbakira deituz.

### ■ YOGA IKASTAROA

Arrasate Yoga Elkarteak ikastaroak hasiko ditu irailaren 28an. Izena emateko epea zabalik dago. Interesatuak 943 79 66 98 ra edo 943 79 35 76ra deitu dezakete. Ikastaroak goizez zein arratsaldez izango dira. Ikastaroak 6 aste iraungo du.

### ■ FAMILIA ETA GIZARTE HEZKUNTZARAKO ZENTRUA

Familia eta Gizarte Hezkuntzarako zentruak urriaren 1ean hasiko du ikastaro berria. Egun horretan Guggenheim museora txangoa egingo dute. Hori dela eta, izena eman nahi duten guztiek irailaren 18tik aurrera eman dezakete izena goizez 10:00etatik 12:00etara eta arratsaldez, 18:00etatik 20:00ak bitartean.

### ■ 48an JAI OAK

Bergaran 1948an jaiotakoek afaria egingo dute irailaren 26an, Lasa jatetxean. Aurrez meza izango dute Santa Marina elizan. Afalostean, berri, mariatxiekien dantzaldia antolatu dute. Nahi dutenek 8.500 pta. sartu beharko dituzte Kutxan edo Euskadiko Kutxan.

### S. CARRASCAL S.L.

#### Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

#### Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82

## BITTORI

## ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua  
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak  
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

## beatriz

oinetakoak  
eta poltsak

Erdiko kale, 11  
Tel.: 943 79 14 33  
ARRASATE



USTEAK USTE

Agur, Anton

J oan den igandean jakin izan nuen Anton Markaideren heriotzaz. Bi minutu lehenago pentsatzen ari nintzen, ez dakit zerk eraginda, ondo egongo litzatekeela Antoni elkarrizketa egitea aldizkarian. Horregatik, heriotzaren berriak zirrara eragin zidan.

Anton Zigorrolako saloian gogoratzen dut lehenengoz. Gabonak inguruan festa bat antolatzen zen. Saloia lepo egoten zen. Saioaren aurkezleak seminarista nagusiak izaten ziren. Musika, antzerkia, lehiaketak..., denetik apur bat egoten zen. Behin, oso mutiko nintzela, oholtzara igotzera ausartu nintzen, lehiaketa batean parte hartzera.

Antonek, sotana jantzita zuela, eskua bizkarrean jarri eta esan zidan. "A ver, Josetxu, qué le trajeron los Reyes Magos a Jesucristo?". Eta nik: "Oro, incienso y... tierra". Zalantzan geratu ziren bera eta Guti saria eman edo ez eman, eta ez dakit azkenean eman zidaten ere.

Irudi horiek etorri zitzaizkidan burura. Agur, Anton.

Joxe Aranzabal



Euskal Herritarrok

Xabier Zubizarreta \*

Euskal Herritarrok zer den adierazten hasiz gero, oso kontuan hartu beharra dago zein testuinguru orokorretan jaio den. Hain zuzen ere, Autonomien Estatuaren proiektuak porrot politiko ukazina jasan duenean.

Ezker abertzaleak betidanik aldarrikatu du 1978an espainiar estatuan era guztiz antidemokratiko batez ezarri zela Francoren ondorengo erreforma; hain zuzen ere, uste genuelako erreforma horrek ez zuela errespetatzen eta kontuan hartzen euskaldunon borondatea, dena delakoa izaki ere.

Gaur egun euskal esparruko beste alderdiek ere aitortza bera egin dute eta esparru politiko berria aldarrikatzen hasiak dira.

Baina espainiar estatuko alderdi nagusiek, PPK eta PSOEek, euren politika itxurarekin segitzen

dute, hots, 1978an Espainiako Konstituzioan kontsagratu bide ziren printzipioen defentsan.

Gu beraiantzat espainiar estatuko eskualde bat besterik ez gara, eta aipatu konstituzioaren arabera, printzipio hori hausten duenak espainiar armadarekin topo egin dezake, azken finean.

Baina ezker abertzaleak hogeit urte hauetan eraman duen borrokak bere fruituak eman ditu. Euskal Herriko gehiengo sozial handi batek, ozenki aldarrikatu duenean Euskal Herriaren lurralde

batasuna, gure etorkizuna geuk erabakitzeke dugun eskubidea, estatuarekin ukan dugun borrokak duen izaera politikoa eta, beraz, euskaldunon borondatea errespetatuz bakarrik konpon daitekeela bizi eta jasaten ari garen arazoa, sortu da EH.

Ezker abertzaleak jasan behar izan dituen erasoen gainetik, berriz ere euskal herritar guztiei aukera berria eskaintzen die, Euskal Herria nazio bat dela sinesten duen ororentzat, proiektu honen ildora batu dadin.

Baina, gainera, EHk uste du proiektu hau gauzatuko bada, euskal gizartearen eskuhartze zuzenaz bakarrik gauzatu ahal izango dela, aurrerazale izan behar duela, irizpide guztien errespetutik bakarrik uler daitekeela, mugarik eta aurrealdintzarik gabeko elkarrizketaren bidez. Zentzu honetan, beraz, gertakizun historikoa, Euskal Herriaren ilusioa sortzen duen ekimena da EH.

Hauteskunde batzuen atarian jaio da, baina EH ez da bukatzen hauteskundeekin eta eskaintza garbia egiten dio euskal gizarteari, urriaren 25eko hauteskunde hauek elkarlanerako esparru berri bat bihurtzeaz gainera, estatu espainolak euskaldunon aurka darman borroka politika hau gaintitu ahal izateko, geure nazioaren eraikuntza esku artean har dezagun.

“EHk ez da bukatuko hauteskundeekin. Geure nazioaren eraikuntza geure esku dago”

\* EHko hautagaia.

M  
A  
ARENAZA

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

Bizkai, 1 • ARETXABAETA  
Tel.: 943 79 08 07

Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 52 50

BASABE  
JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tel.: 943 79 91 84

ARETXABAETA



astea bi hitzetan

■ **Hauteskunde sindikalak abian**

Asteartean hasi ziren abendu arte iraungo duten hauteskunde sindikalak. Arrasateko enpresa txikietan egin dira bozketak dagoeneko. Hilaren bukaerarako enpresa handi eta ertainetan bozkatuko dute langileek, euren ordezkariak izendatzeko.

■ **Iñaki Arsuaga arrasatearra zaurituta**

Iñaki Arsuaga 32 urteko gazte arrasatearra zaurituta suertatu zen joan den astean Soroluzen gertatutako gas leherketan. Bera eta beste zauritu bat Gurutzetako ospitalera eraman zituzten, hirugarren graduko erredurekin. Iñaki gas enpresako langilea da eta lana gainbegiratzeko zebilela erre zen. Istripuan gorputzaren %35 erre zitzaion.

■ **Emakume bat harrapatu**

Astearte goizean istripua izan zen Musakolako Gipuzkoa Etorbidean, Kutxaren bulegoaren ondoren. Auto batek, J.A.A. inizialak dituen 60 urteko emakume bat harrapatu zuen. Mokorra apurtu zuen emakumeak eta Eskualdeko Ospitalera eraman zuten. Egun berean beste bi auto istripu gertatu ziren: bat Kanpazarrerako bidean, erraustegia baino beheaxeago, bi automobilek aurrez aurre jo zutenean. Ez zen zauriturik izan. Hirugarrena 12:45etan gertatu zen, San Prudentzian. Hiru ibilgailuk elkar jo zuten. Auto ilarak sortu ziren.

■ **Barruko igerilekua zabalik Musakolan**

Astelehenean zabaldu ziren

Musakolako barruko igerilekuak, honako ordutegiarekin: asteleheneetik ostiralera 08:00etatik 21:00etara. Larunbatean 09:00etatik 13:30etara eta 16:00etatik 19:30etara. Igandean, 09:00etatik 13:30etara.

■ **Berriz ere eskolara**

Aste honetan Arrasateko ikastetxe gehienak hasi dira eskolak ematen. Herri eskolak eta La Merced ikastetxea hasi ziren eta gero ikastolak etorri ziren atzetik. Toki batzuetan oraindik egun erdia ematen ari dira, hala ere. Laster hasiko dira, hala ere. Laster hasiko dira, ordea, egun osoan zehar ikasten. Atzo bertan, bestalde, Mondragon Unibertsitateak ikasturte berriaren irekitze ekitaldia egin zuen Amaia antzokian. Haxe da MUREn bigarren urtea unibertsitate gisa.

■ **OMENALDIA ENRIKE PAGOAGARI**

Jende ugari bildu zen joan den ostiralean Portaloian, Enrike Pagoaga arrasatearrari ongietorria ematera. Omenaldian bildutakoek pozteko eguna zela adierazi zuten, baina euskal iheslari eta atzerriratuen egoera ez dela azken urteetan bat ere aldatu salatu zuten.



Arizmendiarraren santutasuna Alfonsorekin (Gorroñogoitia) behin eta berriro agertzen den gaia da. Haren eta honen lagunak diren Del Arcok eta Riaza de Madridek beatifikatzeko urratsak egiten hasi dadila proposatzen diote. (...) Beatifikazioa gauza serioa izan behar da, kontuan izanda gainditu behar diren mailak eta behar izaten diren diruak. Alfonsok dioenez, On Jose Mariaren santutasuna ez da ondo uztartzen haren bizitzan ikusi dituen zenbait ertzeekin. 'Esango nuke ezustekorik handiena izan zela hiltzeari aurre egin izana. Bizitzari hobatzen zion, ustez kontraesanetan Aitarenganantz joateko jarrerarekin (...), nahiz eta 'Magnificat anima mea Dominum' ahopean esanez hil zen'.

**JESUS LARRAÑAGA**

"Interioridades de una Utopía"



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 943 71 48 45 ESKORIATZA

**TXOKO TABERNA**

Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak




## Bisita gidatuak Lezetxikin

Uztailean garbiketa eta azterketa lanak amaitu ondoren, Alvaro Arrizabalaga arkeologoak Lezetxikiko haitzuloa ezagutzera ematea berau zaintzeko modurik egokiena izango zela azaldu zien udaletxeko ordezkariari. Berak adierazi digunez, jendearen jakinmina asetuz gero, gutxiago lirajteke haitzuloa babesteko jarri diren hesiak pasatu eta inongo kontrolik gabe haitzuloan barrena sartuko liratekeenak.

Arrasateko Udalak, haitzulo guztiaren inguruan hesi bat jarri zuen inor barrura sartzea debekatuz. Alvaro Arrizabalagaren ustez, gurri hauek beharrezkoak diren arren, jendearen jakinmina areagotzen dute eta bertara sartu nahi dutenak geroz eta gehiago izatea dakar. Hori dela eta, Lezetxiki ezagutzera emateko modu bat, bisita gidatuak egitea litzateke.

Inguruak dituen hiru hektareetan zazpi haitzulo daude: Kobahandi, Atxabal, Laminen Ezkatza, Lezetxiki, Lezetxikiko Harpea, Lezetxe eta Oterreta II. Honela, Gipuzkoako aztarnategirik handiena dela esan genezake.

Oraingoz ez bada erabaki bisitak zenbatero egingo diren, Alvarok bi astean behin edo hilean behin egitea egokia litzatekeela azaldu digu. Noski, bisita gidatu horiek ere, pertsona egoki batek zuzendu beharko litzuzke. Alvarok dioenez, bera prest agertu zen udal ordezkarien aurrean, arduradun hori hezitzeko material egokia gertatzeko bai eta Lezetxiki ezagutu nahi izango luke ten guztientzat material informatiboa egiteko. Hala ere, oraindik ikusi egin beharko da nola antolatuko diren bisitak, bai eta epe motzean abian jarriko diren.



Mila Larrañaga, Lankideak taldeko partaidea eta Juan Ramon Garai Ezker Sindikalekoa.

# Euskadiko Kutzako zenbait azpikontratu auzitan

Ezker Sindikalak eta kooperatibetako Lankideak taldeak, Euskadiko Kutzak orain lau urte egindako azpikontratazio bat salatu zuten asteartean prentsaren aurrean. Euskadiko Kutzak, CDI (Centro Domatica e Imagen SA) enpresaren zerbitzuak kontratatu zituen administrazio lan batzuk egiteko. CDI enpresak hamahiru langile jarri zituen horretan, baina Ezker Sindikaleko bozeramaileak prentsaurrean azaldu zuenez, "lan baldintza kaskarrak dituzte, Euskadiko Kutzako beste langileek baino 106 ordu gehiago sartzen baitituzte urtean eta, gainera, soldataren herena bakarrik jasotzen dute, 78.000 pta. garbi".

### PROPOSAMENA LUZATU

Bi sindikatuek hurrengo proposamena luzatu zioten Eus-

kadiko Kutzako zuzendaritzari apirilean: langileen lan baldintzak hobetzeko, CDI enpresari Gipuzkoako bulegoetako hitzarmena aplikatzeko eskatzea. Hitzarmen hau aplikatuz gero, langileek soldata bikoitza irabaz dezakete eta epe luzeagoan, Euskadiko Kutzako beste langileekin homologatuak izan. Uztailean, Euskadiko Kutzako Kontseilu Errektoreko lehendakariak, Juan Mari Otegi, sindikatuen erreklamazioa enpresari helaraziko zio-la esan zien sindikatuei.

Euskadiko Kutzako kontseilu sozialaren erantzuna honakoa izan zen "prest gauden enpresa azpikontratatisten zapalkuntzari aurre egiteko, baina zuzendaritza-organoen aurrean burutzen diren egintzen barruan".

Sindikatuentzat Euskadiko Kutzako zuzendaritzak

hartutako jarrera guztiz desgokoa da. "Lanak azpikontratatze helburua gastuak txikitzea da, baina azken urtean 15.000 milioiko mozkinak lortu dituen enpresa kooperatiboak hori egitea astakeria handia da" adierazi zuten sindikatuek.

Euskadiko Kutzako Komunikazio arduradunak argi utzi nahi izan du, Euskadiko Kutzak ez duela langile horiekiko inongo erantzukizunik. "Guk enpresa baten zerbitzua kontratatu genuen, administrazio lan batzuk egiteko. Enpresa horrek zerbitzu hori eskaintzeko behar duen langile kopurua, zenbat ordaintzen dien eta zer ordutegi jartzen dien, enpresa horren kontua da. Langile horiek kontratatu dituen enpresari egin behar diote erreklamazioa eta ez Euskadiko Kutzari".





**CASSOLOPILIZZERIA**  
**Labean egindako italiar pizzak**

**ORDUTEGIA:**

**Taberna:**  
 Goizeko 10:00etatik 24:00etara,  
 astegunetan  
 Asteburuetan 12:00etatik aurrera.

**Bazkariak:**  
 13:00etatik 15:00etara

**Ordutegi bera bazkaria edo afaria etxera eramateko**

**Afariak:**  
 Arratsaldeko 20:00etatik gaueko 23:00ak arte

**MENUAN BERRIKUNTZA:**

Asteburu honetatik aurrera labean egindako pizzez gain, pasta ere izango duzu gozagail


**MARITXU KAJOI GAUEKO AFARIA CASSOLON!**

Bi banda dituzu:  
 21:00etatik 22:30etara  
 22:30etatik 24:00etara

*Zatoz!!*

**Arima Zuri, 2 ARRASATE Tel.: 943 79 45 64**

**Nere ikusmena zaindu beharra daukat...**



telebista ikusi



irakurri eta ikasi



marrastu



Eraman ezazu puzzle zoragarri bat ikasturte honetan! ZATOZI!!

**...gauza guzti hauek egiteko**

**INSTITUTO OPTICO**  
 Erdiko kale, 22  
 20500 ARRASATE  
 943 79 71 68

**INSTITUTO OPTICO**  
 Hiper Eroski  
 20500 ARRASATE  
 943 79 78 26

**OPTICA GARAGORRI**  
 Iturriotz, 29  
 20500 ARRASATE  
 943 79 16 98

**INSTITUTO OPTICO**  
 Andra Mari, 8  
 48200 DURANGO  
 94 6202986

**INSTITUTO OPTICO**  
 Grupo San Ignacio, 3  
 48200 DURANGO  
 94 6818492

**INSTITUTO OPTICO**  
 Erdiko kale, 21  
 20830 MUTRIKU  
 943 60 31 54



## MUK Brasilgo irakasleak prestatuko ditu

Mondragon Unibertsitateak (MU) eta Brasilgo Mato Grosoko Unibertsitate Federalak, urrutiko ikasketak garatzeko hitzarmena sinatu zuten joan den asteartean Leintz Gatzagako udaletxean. Hitzarmen horren bidez, urrutiko prestakuntza eta ikaskuntza bultzatuko dute elkarrekin bi unibertsitateek.

Urrutiko ikaskuntzak informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan izango du laguntzailerik preziatuena: Leintz Gatzagako Ihardun Multimedia enpresak CD-ROMak erabiliz sortuko du autoprestakuntzarako materiala. Metodo honekin ikaslearen lana erraztu nahi da. Motibatzailea izan dadin, baliabide asko erabiliko dituzte. Horrez gain, tutoretza izango dute ikasleek, Interneteko zerbitzari baten bitartez.

Lehen fasean, bi unibertsitateko errektoreek espero dute lehen hezkuntzako 10.000 irakasle brasildarrek lizentziatura lortuko dutela urrutiko ikaskuntza erabiliz.



Lehen aldiz, EAEko udal euskaltegi guztiak kanpaina bateratua egingo dute.

## EAEko udal euskaltegiak aurtengo kanpaina aurkeztu zuten

“Oraingoa bai! Iraila euskaraz dator!”. Hori da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udal euskaltegien leloa aurtengo kanpainarako. Lelo horrekin aurkeztu zuten joan den ostiral goizean Donostian datorren ikasturtea.

Aurkezpen ekitaldian Jose Maria Loiti Arrasateko alkatea, Jose Maria Gonzalez Zorrilla Eudeleko burua, Francisco Buen Irungo alkatea, Jokin Azkue HABEko zuzendari nagusia, eta Are-

txabaleta eta Leioako udal euskaltegiatako zuzendariak izan ziren. Gonbidatu gisa, Gorka Gerrikagoitia Euskadi-Euskaltel txirrindulari taldeko txirrindularia, Gernikako udal euskaltegian ikasitakoa bera. Agintariek azpimarratu egin zuten aurtengoa lehen aldia izan dela Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udal euskaltegiak eskaintza bateratua egin dutena.

Horretan zerikusi handia izan du Arrasate Komunika-

bideak elkarteak. *Arrasate Press* eta ATB kudeatzeaz gain, publizitate agentzia moduan egiten du lan. Izan ere, iaz Gipuzkoako udal euskaltegien kanpaina egin zuen eta aurtun bizkaitarren eta arabarren atxikimentua lortu du.

Arkorentzat erronka berezia izan da EAEko udal euskaltegi guztien mezu eta irudi bateratua lantzea.

Iaz 11.000 lagunek aukeratu zituzten udal euskaltegiak euskara ikasteko.



# LASAGABASTER-en

## AUKERARIK ONENA



**DOCKERS®**  
pants by  
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



**OÑATI**

**1 Monumentua artzainari**

Artzain euskaldunaren ome-  
nez egindako monumentua  
bihar inauguratuko da Oñatin.  
Nestor Basterretxea eskulto-  
reak artzain euskaldunek mun-  
duan zehar utzitako ondore-  
na sinbolizatu du, hamar  
metroko zuhaitz genealogiko  
baten bidez. Basterretxeak  
Oñatin jarriko duen eskulto-  
rak parekoa du Estatu Batue-  
tako Reno hirian. Hango eus-  
kaldunen artean sortu zuen  
ezbaia ezaguna da Euskal  
Herrian ere.

**ESKORIATZA**

**2 Industrialde berria**

Eskoriatzako Udalak  
60.000m<sup>2</sup>ko industrialde berria  
jarriko du Almen ikastolatik  
hasi eta Eskoriatzako sarrera-  
raino dagoen tartean. Udalak,  
124 milioi pta gastatu ditu lur-  
saila erosteko. Aurreikuspen-  
en arabera, 1999ko martxo-  
an hasiko dira lanak. Pabi-  
lioaiak 28.000m<sup>2</sup>tan zehar erai-  
kiko dira. Industrialde berrian  
herriarentzako zerbitzu berriak  
ere ezarriko dira.



**Deba Garaia**

Elgetan erabakiko da nortzuk  
izango diren titularrak eta nor-  
tzuk ordezko.

**BERGARA**

**4 Lexikoa berreskuratuz**

Bergarako Udalak, lexiko  
bereziak biltzeko asmoarekin,  
*Txondorrak, Karobiak, Elur-  
zuloak* liburua kaleratu berri  
du. Liburuak galtzar edo gal-  
duta dauden ogibideetan era-  
biltzen zen lexikoa eta esake-  
rak berreskuratzen ditu. Amaia  
Olañeta bergararra eta Argi-  
ñe Urkiola markinarra dira  
egileak. Bergara aldeko ber-  
bak eta langintza zaharrak  
jaso nahi ditu udalak, hau eta  
antzerako beste hainbat libu-  
ruekin

**ARETXABALETAKO**

**5 Lekuz aldatu udal euskaltegia**

Arrexabaletako udal eus-  
kaltegiak ohiko lekua utzi eta-  
Nafarroa kaleko 2. atarian  
izango du egoitza berria. Hasi  
berri den ikasturte honetan  
beraz, han hartuko dituzte  
eskolak euskara ikasi nahi  
duten ikasle helduek.

**ELGETA**

**3 Pilotari mundialak**

Datorren urrian Mexikoko  
Pilota Mundialera joango diren  
pilotariak sekulako ikuskizu-  
na eskainiko dute gaur arra-

tsaldean Elgetako frontoian.  
Zazpientatik aurrera, Murua-  
mendiaraz-Iñurategi bikoteak  
indarrak neurtuko ditu Yañez-  
Ruiz bikotearekin. Banakako-  
an, Apezetxeak Berraondoren  
kontra jokatu du. Denak  
joango dira mundialera, baina

**ZER ARI ZARA ITXAROTEN?  
EGIN ZURE MATRIKULA**

**ESKOLA PARTIKULARRAK**

• OHO - EII - BBB - LH - BT - UBI

**INGENIARITZA**

• Algebra I - Kalkulua I eta II - Fisika I eta II - Termodinamika - Informatika I

**GAZTELANIA**

**ATZERRITARRENTZAT**

**HIZKUNTZA IKASTAROAK ATZERRIAN (KING'S COLLEGE)**

**MEKANOGRAFIA**

• Ordenadore bidez

**INFORMATIKA**

**OFIMATIKA**  
• Testu prozesatzailea  
• Datu Baseak  
• Kalkulu orriak

**PROGRAMAZIOA**

Qbasic - Turbo Pascal - Turbo C - Dbase - Cobol...

**INTERNET**

• Nabigatzea - Posta elektronikoa - Web orriak

Garibai, 6 - B ARRASATE  
Tel/Faxa: 943 77 11 06  
e-mail: bikain@jet.es



Konponbide Garaia da



**AURKEZPENA ARRASATEN**

**HIZLARIAK: Arnaldo Otegi  
Xabier Zubizarreta**  
**EGUNA: Irailak 23, asteazkena**

**ORDUA: 19:30**

**TOKIA: Monterron Jauregia**





## ZEUS ERE ERROMERIAN

Aurtengoan izan zen berritasunik Arantzazuko erromesaldian. Fraidea azken urteetako Land Rover zaharra alde batera utzi eta Arrasaten egindako Zeus auto elektrikoan joan zen erromesaldiaren buruan. Teknologia berriek eta punta-puntakoek antzinako ohiturekin bat egiten dute batzuetan... Eguraldia gorabehera, mondragoetar askok egin zuten Arantzazura.

## ERGUINGO JAIK

Jai dotoreak Erguin auzoan aurten izan dituztenak. Pailazoak, berbenak, bertsolariak... Kirolak ere ez dira falta izan. Antzinako herri kirolak eta gaztetxoek nahiago dituzten lasterketak. Azken finean, josteta eta umore ona nagusi.




PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

# IBABE GARAJEA


**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



AGUSTIN

Automobilaren karburazioa eta elektronika



Uribarri Etorbidea, 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 73 58





## ALMEN-JAKION

Eskubaloia talde berriak ditugu bailaran. Jakion enpresa gatzagarrak Almen ikastolako bi talde babestuko ditu aurten. Haur eta gazte mailako ligan arituko dira. Gazte mailako taldea Jesus Mari Labaienek entrenatzen du. Taldeen aurkezpenean esan zuenez, aurten emaitza onak izatea espero dute.



## ARRASATEKO AZA GOXOAK

Kontxita Berezibar arrasatearrak erraz saldu zituen joan den astean Bergarako azokara eramandako barazkiak. San Martinak zirela eta, urteroko barazki, fruitu, gazta eta loren feria antolatu zen.

Giroak ez zuen asko lagundu, baina baserritarrak pozik azaldu ziren jendearen erantzunarekin.



### Pavimentos AGR

#### AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar  
MATERIALEN SALMENTA

#### Erakusketa eta biltegia:

Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

### Obstetrizia eta Ginekologia kantsulta Serrano Dokorea

HAURDUNALDIA  
AMNIOZENTESIA  
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA  
BASEKTOMIA  
BULAR PATOLOGIA

#### SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 943 76 59 39 / 943 76 59 72 • Fax: 943 76 25 72







Lapurrek bazekiten nora jo eta zer hartu Legarreko dendan.

# Lapurrek eskubete lan izan dute

**S**an Andresko Txindoki dorrean lau lapurreta egin ziren egun berean. Etxekoek kanpoan zeudela aprobeztatu eta lau etxebizitzatan ostu zuten ordu berean. Bitxiak eta dirua eraman zituzten bakarrik. Azkar hartu, lasai eraman eta erraz sal daitekeen harrapakina. Arrasaten ez dira kasu bakarrik izan. Tamalez, ez dira azkeneko izango.

**Lapurrak! Lapurrak!** Azken boladan, kaleko txokoetan antolatzen diren hizketaldietan, lapurretak izan dira gai nagusi. Izan ere, herriko zenbait dendatan eta etxe askotan lapurrak lasai asko sartu dira. Sartu bakarrik ez, euren harrapakina ere ondo gordeta eraman dute.

## ETXEAN LAPURREKIN

Milagros Esparza San Andres auzoko Araba etorbidean bakarrik bizi den 66 urteko emakumea da. Abuztu hasierako egun batean, alabarekin telebista ikusten ari zela, lapurrak

sartu zitzaizkion etxean. "Atea krisketa barik nuen itxita, baina etxean egonda, nork pentsa zezakeen lapurrak sartuko zirela?"


Arratsaldeko 15:30ak izango ziren, Milak ixten zen ate

baten zarata entzun zuenean. Pasabidera irten eta inor ez zegoela ikusirik, auzokide baten atea izango zela pentsatu zuen. Gauean, ordea, konturatu zen sukaldean utzitako urrezko belarritako pare bat eta bi eraztun falta zitzaizkiola.

Ertzaintzara deitu zuen desagerpenaren salaketa jartzeko, eta polizia usteak egiaztatatu zituen: lapurrak bere etxean sartu zirela, alegia. Etxeko atea, txartel batekin zabaldu



## “Arrasatek ez du kriminaltasun handirik”



Arrasatek eta inguruko herriek egoera pribilejiatua bizi dutela azpimarratu du Eusko Jaurlaritzako Bame Sailak. “Aurten izan daiteke lapurretek gora egitea, baina ez alarmerik sortzeko haina” adierazi dute Barne Sailetik. Bizilagunak kontu handiagorekin ibili behar direla esan dute. “Jendea nahi-

ko arduragabea da. Ez ditu atea giltzarekin ixten, edozein zabaltzen dio atariko atea, oporretan doazenean etxea hutsik dagoelako pistak uzten dituzte...”.

Urtariletik hona Arrasaten salatu diren lapurretak hauek izan dira:

etxe partikularretan 16, tabernatan bi, denda, lokal

eta biltegietan zazpi, ikastola edo hezkuntza zentruetan bi (kasu hauetan ez dute ezer ostu, gauzak apurtu bakarrik). Autoetatik lapurtutako gauzei dagokienez, 40 kasu salatu dira gure inguruetan. Lau auto lapurtu dira eta zirkulomotorak, beste lau.

## Kode berezia

Hainbat herritan, lapurrek erabiltzen duten ustezko kode berezia hedatu da. Dirudienez,

etxeetan zeinuk egiten dituzte etxearen ezauzgarriak adierazteko. Ertzaintzak dioenez,

hamabi urte dela agertu ziren zeinuk, beraz, gaur egun izan daiteke zaharkituak egotea.



Jenderik ez



Lapurtutako etxea



Azkar: laster itzuliko dira



Hemen ezer ere ez



Emakumea bakarrik



Oporretan



Palanka erabili



Oso ona

izanaren markak zituen. “Txartelarekin atea zabaldu eta gu telebista ikusten geundela, sukaldean sartu ziren. Urrezko bitxiekin batera, imitaziozko bitxiak ere banituen, baina horiek ez zituzten hartu. Aldamenean 8.000 pta ere banituen, baina dirudienez, ez zuten denborarik izan”.

Susto galanta hartu zuen Milak gertatutakoa jakiterakoan. “Nire ustez, bazekiten bakarrik bizi naizela. Nola-baiteko kontrola izan behar zuten etxean horrela sartzeko. Orain atea krisketearekin ixten dut beti”.

### LAPUR AZKARRAK

Erguingo lagun batek “lapurren azkartasuna” azpimarratu du. Apirila bukaerako egun batean, arratsaldeko 20:00etan

etxetik irten zen emaztearekin bueltatxo bat ematera. “Aurten ondo jantzitako bi gaztearekin gurutzatu ginen. Ezezagunak ziren, baina hizketan zebiltzan eta ez genuen susmo txarrik hartu”. Senar-emazteak joan eta bi gazteak barrura sartu ziren. Arratsaldeko 20:15etan, bikotearen semea etxean sartzera zihoala, bi gazteekin egin zuen topo atean. Gazteek semea agurtu eta aurrera egin zuten lasai. Etxe barruan, bazterrak nahasten ibili zirela konturatu zen mutila eta gurasoei abisatu zien. Arratsaldeko 20:20rako partea eman zioten Ertzaintzari, baina ez zituzten lapurrak harrapatu. Diru apur bat eta bitxiak eraman zituzten lapurrek. “Orain beti ixten dugu atea giltzarekin”, dio gure lagunak.

### FURGONETAN ERE BAI

Aldizkari honetan kontatu genizuen bezala, lapurreta ikusgarria egin zuten Legarren, Elkoroko etxeko tresna elektrikoekin dendan. Irailaren lehen goizeko 05:00etan, sekulako zarata entzun zuten Legarretako auzokideek. Batzuek furgoneta bat ikusi zuten Elkoroko dendaren aurrean eta ertzainei deitu zieten. Ertzainak heldu zirenerako, han ez zegoen inor. Denda leihoa eta persiana furgonetarekin puskatu zituzten. Denda kristalez beteta zegoen eta zenbait tresna hondatuta. Dendaren beste aldean, bideokameren eta telefono mugikorren beirategiak apurtuta zeuden. Hiru bideokamera, hainbat telefono mugikor, musikako sei tresna, eta bizpahiru bideokonsola eraman

zituzten. Guztira, milioi bat pezeta, gutxi gorabehera. “Esku-argiekin sartu ziren —esan du Juan Luis Elkorok— Nire ustez, bazekiten nora jo eta zer hartu. Erraz eraman eta prezio onean erraz sal daitezkeen gauzak hartu zituzten bakarrik”.

Hogei urtean Elkorok izan duen lehenengo lapurreta izan da. Ertzainek adierazi diotenez, gainera, horrelakorik ez da gertatu inoiz, ez Arrasaten, ez inguruko herrietan. “Alarma hobea dugu orain. Dena den, horrela sartzan direnean, ezer gutxi egin daiteke. Alarmak jotzen du, baina Ertzaintza heltzen denarako, lapurreta egiteko astia izan dute”.

Marian Porcel





# Nayrelis

## Ikas ezazu dantza egiten Nayrelisekin **ATERPEN**



*Dantza afroamerikarrak*

**SOM** - Rumba - Rueda - Casino - Koreografiak - Kabaret teknikak  
 - Rhythmoa - Salsa - Cha, cha, cha - Kuboko

Eman ezazu  
ikastarorako izena  
Aterpe Kafetegian  
(Amaia antzokiaren ondoan)

Zain izango gaituzu!!  
Tel.: 943 77 03 87

Hartu ezazu parte lehiaketa honetan  
Lehenengo 3 irabazleek ikastaroko lehenengo  
hilabetea dohain izango dute!

**Zein harreman izan zuen  
Compay Segundok  
Matamoros Hirukotearekin?**

Izen-Abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

Erantzuna: \_\_\_\_\_





Jende askok egin beharko du lan gauzak nahi bezala irten daitezen.

## Bozketa egunak 2.300.000 pta.ko kostua izango du Arrasaten

Datorren hilean, urriaren 25ean, bozketa eguna izango da. Baina zelangoa kostua izango du Arrasaten? 2.300.000 pta inguru. Baina Arrasteko Udalak ez du txikitarik ere ordainduko. Diru hori Eusko Jaurlaritzaren Barne Sailetik etorriko da. (Bestelako hauteskundeetan, udal, orokor eta Europakoetan alegia, Madrilgo Gobernuaren ordezkarietatik etortzen da).

Nola banatzen da dirua? Arrasaten 30 hautemahai jarriko dira. Bakoitzean lehendakari bat eta bi kide izendatuko dira, zozketa egin eta gero. Egun osoa hantxe igaroko dutenez, bakoitzari 10.000 pta ordainduko zaizkio; guztira, beraz, 900.000 pta.

Gainerakoa hauen artean banatzen da. Udal-tzainek 270 jakinarazpen banatu behar dituzte esku-

ra. Udal Brigadakoek bozketarako tokiak prestatu behar dituzte, mahaia, apalak, aulkiak, etab. Jarriz. Auzo Lagunekoei ere garbitu egingo dituzte tokiak. Igandean zehar, berriz, hainbat udal langilek egin beharko dute lan, azalpenak emanez, emaitzak jasoz, faxak bidaltzen, etab. Horiek guztiak kobratu egin behar dute.

# Euroa

## Ecutan egindako inbertsioak nola bihurtuko dira eurotan?

1999ko urtarrilaren leian, ecua euro bihurtuko da, honako proportzioan: ecu bat = euro bat. Beraz, ecutan egindako inbertsioak ez dira bat ere aldatuko.



**Euro baten balioa**

**166,6 PTA**



# URONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76



# AZK Komunikazio Taldea

AZK hiru lagunek sortu zuten 1987an: Iñaki Azkoaga, Daniel Miguelez eta Jose Angel Iturbe. Hirurek segitzen dute enpresan. Bi urtez, Iñakiren "Asubealde" base-riaren ganbaran egin zuten lan, publizitatean batik bat. Hazi egin zen, ordea, taldea eta San Juan auzora aldatu ziren, hiru urterako. 1992a arte. Orduan Aretxabaletako Industrialdera joan ziren, Arrasateko hainbat enpresak egin zuten moduan.

1996an, azkenik, Bilbon ireki zuten beste bulego bat, Boluetan. Gaur egun, beraz, bi egoitza ditu: Aretxabale- tan eta Bilbon. Biak RDSI kablez lotuta daude, beraz, informazioa instantean trukatzeko moduan. Hornitzaileak ere era horretan daude komunikaturik.

Guztira bederatzi lagun, denak lizentziadunak eta gazteak, ari dira lanean AZKren hiru ataletan: publizistak, sortzaileak eta arte espezialistak AZK Taldean; publizistak eta multimedia espezialistak AZK Interactive-n;

eta komunikatzaileak eta kazetariak AZK Corporate atalean. Enpresa hiru ataletan banatzea aurten egin dute, oharturik beren bezeroen premiak publizitate hutsa baino haratago zihoazela. Atal bakoitzak bezero garrantzitsuak ditu, alboko taulan ikus daitekeen legez.

Bulego biak erabat informatizaturik dauzkate eta lan guztiak ordenadorea erabiliz egiten dira. Sorkuntza lanetarako Macintosh ordenadoreak erabiltzen dituzte; gestiorako, ordea, PCak.



AZK: gazteak eta prestatuak.

## AZK Komunikazio Taldea



| ATALAK   | ARDURADUNAK     | BEZEROAK  |
|--|-----------------|---|
| <b>AZK Taldea</b><br>Publizitatea eta produktu berriak                   | Iñaki Azkoaga   | JMA, Aspes, Zahor, Bilbobus, Joma, Ulma                                 |
| <b>AZK Corporate</b><br>Komunikazio aholkularitza eta harreman publikoak | Daniel Miguelez | Ihobe, Unceta, Agría, Dorlet, Alfa, GAC                                 |
| <b>AZK Interactive</b><br>Marketing eta Internet bidezko komunikazioa    | Izaskun Altube  | La Fortaleza, Danobat, Eusko Ikaskuntza, Murube, Getxoko Udala, Iraundi |



# SIKOL

**Sikolen zure gustuko jantziak aurkituko dituzu Maritxu Kajoi egunerako.**

**Zatoz eta probatu!!**

Patroi mozketa eta neurrira egindako soinekoak

Olarte, 31 • ARRASATE • TEL.: 943 79 89 32



**Maritxu Kajoi egunerako**  
makilatu eta orraztu

**3.000** ptatik  
aurrera

**ZATOZ!**

Maalako Arrabala, 21-B  
ARRAGATE • Tel.: 943 77 16 31



# HIZKUNTZEN MUNDUA



Informa zaitez orain !



AHIZKE S.COOP  
Avda. de Alava, 4 - 20500 ARRASATE (GIPUZKOA)  
Tel.: 943 - 712055 Fax: 943 - 712181  
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com  
http: www.cim-idiomas.com  
Olakua, 14 - 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
Tel. 943 - 716000



bai&by

**Matrikula  
Epea Zabalik**  
98-99 IKASTURTEA

- ▶ Hizkuntza eta maila guztiak.
- ▶ Ordutegi malguak.
- ▶ Mediateka zure esku dohainik.
- ▶ Haur, gazte eta helduentzat.
- ▶ Multimedia sistemak.



## AMAGARA

Erdiko Kale, 54 etxabea  
ARRASATE  
Tfnoa: 943 79 09 09

### AURPEGIRAKO TRATAMENDU ESKAINTZA BEREZIA

Irailaren 21etik azaroaren 23ra arte



#### Espezializaturiko Zerbitzu Estetikoak

- Hidratazioa-Nutrizioa
- Tonifikazioa-Zimurrak
- Beltzuneak-Aknea

#### Homeopatia eta Medikuntza Estetikoko Zerbitzuak

- Aurpegiko Azalaren Berrindartzea (Zimur arinak, biguntasuna, begi inguruko zimurrak...)
- Betetze terapiak: Kolagenoa-Hylafort (Zimur sakonak, lepoa...)
- Peeling medikoak (Aknea, beltzuneak...)

**BAKOITZARI DAGOKION TRATAMENDUA.**

3 saio  
egin eta  
saio bat  
dohain!




# ETXE MOBEL

MUEBLES

ALZARIAK

**LOGELATAN  
maisua**

**Zapata  
arratsaldeetan  
zabalik!!**



**Eta orain  
2. SOLAIRUA**

**Egongela eta  
sofa erakusketa**

Etxe Mobil, Deba Garaian eta Behean zehar logela, sofa, egongela eta osagarriak errazago topatzeko saltokia. 48 urteko esperientzia.

Hemengo profesionalak zuzendua. **BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 943 79 41 82

**ARRASATE**



Born Jay taldeko txirrindularia

## OSKAR ASKASIBAR

**“Ez dut uste 21 egun 40 gradutan ibil daitekeenik, ezer hartu gabe”**

— **Nola joan da Goierriko Itzulia?**

— Taldea ondo aritu zen. Ni nahiko ondo nindoan, baina azkenengo etapan erori eta aukera guztiak galdu nituen. Hirugarren urtea da berdina gertatzen zaidana itzuli horretan.

— **Horren gaizki daude Gipuzkoako errepideak?**

— Asfaltoaren egoera txarra da eta, gainera, trafikoa handia dabil. San Prudentziotik Mondragoera, esaterako, zatirik txarrenetarikoa dela esango nuke.

— **Zein litzateke konponbidea?**

— Bazterbideak egitea eta daudenak garbitzea.

— **Nola doa denboraldia?**

— Ondo. Lasterketa bat irabazi dut, eta 2. eta 3. tokiak ere egin ditut. Nahiko gustura nago egindakoarekin, nahiz eta lasterketa gehiago irabazi nahiko nukeen. Baina hemen maila altua dago eta irabaztea zaila da.

— **Eta hurrengo denboraldian?**


— Oraindik ez dakit zer egingo dudan. Bizikletak nahiko erretzen du. Horretara bakarrik dedikatzen zara, asko zaindu behar zara... Gogorra egiten da.

— **Espaniako Itzulia jarraitzen duzu? Nork irabaziko du?**

— Piska bat jarraitzen dut eta Olanok irabaziko duela uste dut. Ondo dabilela ematen du behintzat!

— **Zer diozu Tourrean gertatu zenari buruz?**

— Ez dut uste 21 egun 40 gradutan ibil daitekeenik, ezer gabe. Gehiegizkoa da.



## TXIRRINDULARITZA Goierriko Itzulia



Born Jay taldeko txirrindulariak Goierriko itzulia izan ziren asteburuan. Eguraldia izan zen talde mondragoetarraren etsairik txarra. Lehenengo bi egunetan emaitza nahiko onak izan zituzten arren, igandean Oskar Askasibar eta Ruben Gonzalez erori egin ziren. Askasibarrek etapa amaitzea lortu zuen arren, Gonzalez ospitalera eraman behar izan zuten. Txapela Iberdrola taldeko Juan Antonio Garridok eraman zuen. Larunbat honetan Bergaran jokatu den lasterketan izango dira.

Bestalde, eta gazte mailako txirrindulariei dagokienez, Fagor taldekoak Oñatin izan ziren joan den larunbatean. Asier Atxak hirugarren izatea lortu zuen. Etapa sprintean amaitu zen eta garaipena Bruesa taldeko David Alonsok eskuratu zuen. Atxa hirugarren izan zen, denbora bera-ekin. Larunbat honetan, Beasainen jokatu den XVIII. Beasain proba joango dira, 16:00etan.

## FUTBOLA Derbia asteburuan



Preferente mailako Mondra taldea liga hasiera eskasa izaten ari da. Joan den larunbatean 1 eta 0 galdu zuen Mutrikuaren aurka. Garairen hamaiakakoak Aloña Mendi taldearen bisita izango du asteburu honetan. Mondrak ez dauka puntu bat bera ere, baina derbiak beti girotu egiten direnez, partida polita izango da. Larunbatean jokatu da, 16:30etan, Atxabalpen.

Ohorezko gazte mailako ere ezin izan zuten Santo Tomas Lizeoarekin. Joan den larunbatean Ekain Gari- nek gola sartzea lortu zuen, baina kanpotarrek partida berdindu zuten. Azkenean, bana amaitu zen. Asteburuan Hernaniko taldearen aurka neurtuko dira, Hernanin bertan.


Nesken taldeak, bestalde, larunbatean ekingo dio denboraldiari. Esti Loitiren neskek Oiartzunera joko dute 98-99ko lehen norgehiagoka jokatzerako. Aldaketa asko izan ditu taldeak eta larunbateko erroka garrantzitsua izango da mondragoetarrentzat. Partida larunbat arratsaldean jokatuko da.

## SASKIBALOA Adiskidetasun partida



Arrasate Saskibaloia Taldeak Beasainen aurka jokatuko izan den astelehenean. Adiskidetasun partidak 98-99 denboraldia prestatzeko balio izan zuten mondragoetarrei. 76-75 irabazi zuten seniorrek, Iturripen jokaturako norgehiagokan. Liga irailaren 26an hasiko dute, Bizkaian.

## ERRUGBIA Bilbora larunbatean



Senior mailako errugbi taldeak larunbatean jokatuko du denboraldiko lehen partida, Bilbon, Universitario 15 taldearen aurka. Norgehiagoka San Ignazioko zelaian jokatu dute, 16:30etan. Beteranoek, bestalde, larunbatean ekingo dute urteko batazarra. Bilera 16:00etan, Garagartzan.



## ANTXON MENDIZABAL (IRAKASLEA)

# “Egungo pertsona ideala da globalizazi

**A**rrasatearra sortzez, Francoren garaian iheslari politikoa izan zen Antxon Mendizabal. Ikasketak Eskola Politeknikoan eta Belgikako Lovaniako Unibertsitatean egin zituen. 1977an Arrasatera bueltatu zen amnistiarekin. Geroztik lan askotan aritua, azken hamalau urteotan EHUan dihardu munduko ekonomiari buruzko gaiak ematen. Dena den, guk aterra berri duen “La globalización. Perspectivas desde Euskal Herria” liburuari buruz galdetu nahi izan diogu.

— Zenbat denbora egin duzu liburu hau idazten?

— Liburua idazten oso denbora gutxi igaro dut, hiruzpalau aste. Dena den, liburua lehendik idatzitako artikuluen sintesia da. Azken hiru, do lau urteetako artikulua bildu, laburtu eta gaurkotu egin ditut.

— Zerk bultzatu zaitu ekonomiaren globalizazioaz idaztera?

— Mundu honetan prozesu politiko, ekonomiko eta sozial batean sartuta gaude, eta bilakaera hori erabakigarria da gure askatasunerako estrategia definitzeko. Normalean globalizazioari buruzko azterketa guztiak ekonomizistak dira, baina globalizazioa zerbait sozial, kultural eta ekologikoa ere bada. Nik globalizazioari buruzko sintesi bat egin nahi nuen, baina elementu horiek guztiak sartuz. Bestalde, globalizazioa azken bost mendeetan deuseztapen, alienazio eta dominazioan oinarritutako bilakaera estruktural baten ondorioa da.

— Munduan dauden herri zapalduak hartu dituzu oso kontuan. Hori da zure analisiaren ardatza?

— Ez dira liburuaren ardatza, gure gizartearen ondo-


rio baizik. Momentu honetan dauden borroka guztiak herriaren gatazkaren gainean gautzen dira. Bestalde, herri garatuek eta nazio estatuak munduari buruz duten ikuspegia oso kontrajarria da. Azken hamarkada honetan astero hizkuntza bat desagertzen da munduan, eta herriarentzat izugarritzko erasooa dator. Honen ondorioz nola baiteko antolaketa politikoa d a u k a t e n

herriak soilik geldituko dira. Beraz, horren aurka beste nazioartekotasun bat behar dugu. Horretarako, herrien egoera liburuaren ardatza dela kontsideratu dezaket.

— Globalizazioak zenbateraino alda ditzake txoko honetan bizi garenen bizitzak?

— Globalizazioak herriak, kulturak eta hizkuntzak deusezten ditu, eta hizkuntza bat (ingelesa) eta ekonomian soilik oinarritzen den garapen eredu ezarri. Era berean, demokrazia era bat

**“Globalizazioa azken bost mendeetan deuseztapen, alienazio eta dominazioan oinarritutako bilakaera estruktural baten ondorioa da.”**





# kapitalistaren prozesu zibilizatzaileko”

ere inposatzen du, jendea menderatzeko baliagarria dena, eta pertsona mota bat ere bai: oso indibidualista, diruari begira baino bizi ez dena, helburu bakartzat dirutza egitea duena, eta sustrai politiko, ekonomiko eta kulturarik gabea. Pertsona mota hori da globalizazio kapitalistak behar duena bere prozesu zibilizatzaile horrekin aurrera jarraitzeko. Hori dela eta, guretzat oso garrantzitsua da jakitea non gauden, zein pertsona mota behar dugun eta nora iritsi behar dugun. Baina, horretarako non gauden aztertu behar dugu.

— **Zenbat denboratan eutsi ahal izango dio gizar-teak egungo bizimoduari?**

— Zapalkuntzaren ondorioz, herri eta kultura asko desagertu dira, baina munduak aurrera egingo du. Dena den, egun izugarritzko krisi ekologikoa dago, eta honek baldintza materialen izatea zalantzan jartzen du. Hori oso garrantzitsua da, ingurugiroaren desagerketaz gain, baliabideen deuseztapena baitakar. Alde horretatik, etorkizuna ez da hain garbia, eta gizartea aldatzea eskatzen dugu. Aldatzeak interes batzuen aurka joatea eskatzen du. Baina,

noraino jabetzen gara bizi garen egoeraz, eta gai izango gara gizarte berria egiteko?

— **Hori da irakurleari zuzendu nahi diozun mezua?**

— Bai. Zibilizazio berri bat behar dugu, bioaniztasuna defendatuko duen garapen berria: herriaren eskubideak defendatuko dituen, guztion eskubide ekonomikoak eta sozialak bideratuko dituen... Dauden irabazi sozialak, neurri ekologikoak, duintasuna, herriaren eskubideak, eskubide indibidual, sozial, politiko eta kulturalak... globalizatu behar ditugu.

— **Egun gizartean nagusi den modeloak uzten du beste eredu alternatibo batenzako lekurik?**

— Egun teknologikoki oso aurreratuta gaude eta, bestalde, lau mila milioi pobre daukagu. Hori izugarritzko kontrastua da. Momentu honetan aberatsentzat izugarri on den fikziozko ekonomia baten barnean gaude, eta horrek baldintzatzen du herri desberdinen egoera ekonomiko eta soziala. Honen aurrean, modelo alternatiboa beharrezkoa da, eta gizarte guztietan beti dago zerbait alternatibo egiteko leku bat. ■

...esan zeuk ere  
**BAJ EUSKARARI!!**

**ARRASATEKO ERDU  
AEK EUSKALTEGIA  
EUSKARA IKASTAROAK**

Maila guztiak  
EGA eta ALFABETATZEA  
Matrikula epea: Urriak 2

**INFORMAZIO ETA MATRIKULA  
ERDU AEK EUSKALTEGIA**

Garibai Kalea, 14, 3. Tel.: 943 77 03 69

UDALAREN LAGUNTZAZ  
BEKA SISTEMA

**Euskarak AEK behar du,  
AEK-k zu behar zaitu**

**izena eman**  
euskaltegi eta barnetegietan!

**aeke**



# Jon Andueza, film laburrez film labor eta saririk sari



Bernar filma egin zuten lagunak, filmazio garaian.

Jon Andueza 32 urteko arrasatearra da. Ameriketara jaioa, kazetaritza ikasi zuen Leioan. Geroztik, *Arrasate Pressen*, *Berrigararen* eta ATBn lanean jarduteaz gain, ETBn ere aritu da zenbait programatan. Bestalde, Aitor Agorria eta Xabier Alberdirekin batera, bi film labor ere egin ditu: "Laugarren galeriatik" eta "Bernar".

"Laugarren Galeriatik" film laburrak sari dexente irabazi ditu dagoeneko. "Bernar"ek, ostera, estreinatu berri den arren, lehen saria eskuratu du bere kategorian Eltxeko Nazioarteko Bideo eta Zine lehiaketan. Dena den, ezer gutxi dute bi film laburrek komunean. Jonek esan bezala, "zer pentsatu asko ematen

duten filmak dira. 'Laugarren Galeriatik' film laburrak espetxeko bizimodua, homosexualitatea, eutanasia... bezalako gaiak islatzen ditu. 'Bernar', berriz, sentimendu alde-tik oso ondo landuta dago".

## ARRASATEKO UDALAK DIRU LAGUNTZA UKATU

Orain arteko bi film laburrak bideoz egin dituzte "Udalatz filmeak"eko lagunek. Izan ere, horrela aurrekontua asko murrizten da, zinean egitean film labor bakoitzaren gastua hiruzpalau milioira igoko babilizateke. Gainera, film laburrak egitea ez dute negozio lez planteatzen, eta dirutza handiena beren poltsikotik jarri behar izaten dute. Horretaz gain, Jon ez dago bat ere pozik

Arrasateko Udalarekin: "'Laugarren Galeriatik' ekoiztea 400.000 pta kostatu zitzaigun, eta orduan udalak 100.000 pta. ko dirulaguntza eman zigun. 'Bernar'ek, aldiz, ia milioi bat pta. ko aurrekontua izan du, eta Arrasateko Udalak laguntza ukatu egin zigun. Euskal kulturaren aldeko proiektu bat izanda, ez dugu udalaren jarrera ulertzen". Dena den, zorionez, eskuabalagoa izan den udalik ere bago, Bergarakoa eta Zornotzakoa kasu: hauetako bakoitzak ia 200.000 pta. ko laguntza eman baitie.

Arrasatearrek dagoeneko izan dute "Laugarren galeriatik" Arrasaten bertan ikusteko aukera. "Bernar"ekin horrelako zorterik oraindik bederen

izan ez dugunez, istorioaren ildoak kontatu digu Jonek: "haurdun dagoen emakume batek hondartza batean Down sindromedun mutiko bat ezagutzen duela da istorioaren abiapuntua".

## BERGARAN ERANTZUN ITZELA

Bergararrek, ordea, Jon eta bere laguntaldeak egindako bi filmak ezezik, "Txotx" ere ikusi ahal izan zuten Gartzela Zaharrean. Jendearen erantzuna itzela izan zen gainera, izugarritzko txalo zaparrada jo baitzuten film laburrak bukatzean. Ia bada, arrasatearrok ere "Bernar" laster ikusteko aukera dugun, eta jendeak modu berean erantzuten duen.



INES ETA NAIARA, TRIKITILARIAK

# Ataungo txapela buruan

Ines eta Naiarak Ataungo Trikitilari Gazteen Txapelketa irabazi berri dute. Bi arrasatear gazte hauek orain lau urte hasi ziren elkarrekin jotzen, eta ordutik makina bat txapelketa irabazi dute. Duela urtebete taldea osatu zuten Jon Gardoki eta Igor Salarekin, eta orain maketa bat prestatzen ari dira.

**-Ataungo txapelketakoarekin, zenbagarren txapela jantzi duzue?**

-Ataungoa bosgarren txapela izan da, baina 1995ean beste txapelketa bat ere irabazi genuen, Euskadiko Trikiti Pieza Berrien txapelketa hain zuzen ere.

**-Etorkizunerako proiekturik baduzue?**

-Momentu honetan maketa bat prestatzen ari gara. Urria bukaeran sartuko gara grabatzera, Shot estudioetara. Azaro edo abendu alderako, maketa kalean izango dela espero dugu. Epe luzerako, berriz, ez dugu aurreikuspenik.

**-Trikitixan arrakasta izateko zer da funtsezkoa?**

-Gogoia izatea ezinbestekoa da. Horretaz gain, ordea, printzipalena jendeak zure musika entzutea da.

**-Beste txapelketaren batera aurkezteko asmorik baduzue?**

-Bai, datorren igandean Donostian beste txapelketa bat jokatuko da eta horra ere aurkeztuko gara. Dena den, oraindik ez dakigu Ataunen jotako pieza berberak joko ditugun.

**-Egungo trikitixak, zer du zaharretik eta zer berritik?**

-Gaur egun trikitixa tradizionalak apenas du indarrak. Trikitixarekin egin-



dako rocka, trikitixarekin egindako folka... indarrean daude. Hau da; trikitixa tresna bezala hartuta, musika mota asko egiten da, baina trikitixa tradizionalarekin betidanik horretan aritu izan diren nagusi batzuk besterik ez dute segitzen.

**-Txapelketek zer alde on eta zer txar dute?**

Txapelketek trikitilariak egun horretan egin duten saioaren arabera baloratzen dituzte soilik. Beraz, trikitilari bikoteak txapelketan jo behar dituen piezak baino ez ditu prestatzen. Baina, horrek ez du esan aurrenengo tokian gelditutaiko trikitilari bikotea beste bikoteak baino hobea denik.

## aste gazte

### ■ DIRULAGUNTZAK

- 98-99 ikasturtean unibertsitate mailako eta goi mailako beste ikasketak batzuk egiteko izaera orokorreko dirulaguntzetarako deialdia. Epea: urriak 15.

- 1998-99 ikasturtean unibertsitatez kanpoko ikasketak burutzeko laguntzak. Epea: urriak 16.

### ■ LANA

- Drogomenpekotasun teknikari postua Irungo Udalerako. Epea: irailak 23.

- Etxarri Aranatzeko liburutegirako, arduradun bat behar da. Epea: urriak 7.

### ■ IKASTAROAK

- Eskola Politeknikoak antolatuta, CNCdun fresatzeko makinaren programatzailerik ikastaroa. Hastapen data: irailak 28.

- Aisia eta denbora libreko begirale ikastaroak: a) Txatxilipurdiren eskutik, larunbatetan denbora libreko begirale titulua ateratzeko aukera, b) Hezkide Eskolak, programa zabala du aurtengo ikasturterako: begiralea, astialdiko zuzendaria, suspertzaile soziokulturala, aterpe pisuko hezitzailea, Alzheimer gaixotasunaz ikastaroa, oroimen lantegia... c) Urtxintxa eskolak ere eskaintza zabala du: gizarte kultura eragilea, sexu heziketa begiralea, ingurugiro hezitzailea...

- EHNEK, langabeei zuzenduriko nekazaritza ikastaroa: nekazaritza dibertsifikazioa eta ekoizpen alternatiboak. Izenematea: urriaren 1a baino lehen.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65

**“Gaur egun trikitixa tradizionalak apenas du indarrak”**



## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxebizitza salgai Torrevejian, Alicanten. Berria da, estrenatzeke eta altzariak eta etxeko tresna elektrikoak berri-berriak ditu. Bi logela, egongela, sukaldea. 7.500.000 pta. Tel.: 943 71 52 45. Isabel.

• Etxebizitza salgai Etxezapia kalean (Malvinas). Sukaldea, trastetegia, egongela, hiru logela, bi komun eta hiru terraza dauzka. Tel.: 943 79 92 15. Deitu 22:00etatik 23:00etara.

### 2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 09 97.

### 3. Errentan emateko

• Pertsona batentzako logela bat alokatzen da, astelehene-igandera bitartean. Euskalduna izatea eskatzen da. Tel.: 943 79 72 99 / 943 79 62 04 (Maria Bergaretxe).

• Bakarrik bizi den emakume batek bi oheko gela bat alokatuko luke. Interesatuek deitu 943 79 21 30 edo 943 79 82 43 telefonoetara (Mari).

• Etxebizitza alokatzen diet ikasleei Donostiako Antigua auzoan. Tel.: 943 45 17 29.

• Etxebizitza bat alokatuko nieke ikasleei. Arrasateko alde zaharrean. Tel.: 943 79 90 84.

### 4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza behar dut Arrasaten, lan tokiz aldatu dudalako. Tel.: 943 78 91 10. Dorleta.

• Neska batek etxebizitza alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 943 79 88 13. 22:00etatik aurrera deitu.

• Arrasaten edo Aretxabaletan etxebizitza alokairuan hartuko nuke, edo gela bat alokatutako etxebizitzan. Tel.: 943 79 45. Oskar.

• Lau lagunentzako etxebizitza alokatu nahi dugu Arrasaten. Tel.: 943 64 49 41/946 88 08 48.

• Etxea alokatu nahi dugu Arrasaten edo inguruetan. Nahiago dugu bergailua badauka. Tel.: 944 61 24 29/94461 96 93.

• Pisua alokatuko nuke. Gehienez 60.000 pta ordainduko nituzke (berogailua beharrezkoa). Tel.: 943 71 51 67. (20:00etatik aurrera, Marta).

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

## 13. Erosi

14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

## 24. Erosi

25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdtu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontakatuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

### 5. Etxe konpartituak

• Bi neska behar dira Donostiako erdialdeko etxebizitza bat osatzeko (98-99 ikasturtea). Tel.: 943 79 68 32 (Anabel)/943 79 38 42 (Jone).

• Pertsona batentzako gela alokatzen da San Andresen. Euskalduna bada, hobe. Tel.: 943 79 92 99.

• Mutil bat behar da etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 89 73. Arratsaldez.

• Bilbon etxea osatzeko neska bat edo mutil bat behar da. Tel.: 943 79 69 24. Gaez deitu.

• Etxebizitza behar dut, beste batzuekin bizi ahal izateko. Tel.: 944 12 54 95. Deitu 15:00etatik aurrera.

• Etxebizitza osatzeko lagun baten bila ari gara. Etxea Altamiran dago. Handia eta merkea da. Tel.: 943 77 13 20

• Etxebizitza behar dut, beste batzuekin bizitzeko. Tel.: 944 46 29 17.

• Logela bat behar dut ikaslez osatutako etxebizitzan. Tel.: 943 72 48 76 (Rakel).

• Eskoriatzan etxebizitza konparti-

tzeko edo alokatzeko prest nago. Tel.: 943 81 67 99 (Victoria).

• Bilboko San Ignacio kalean etxebizitza osatzeko bi ikasle euskaldun behar dira. Oso merkea da. Tel.: 943 77 13 77/943 44 50 43.

• Pertsona bat behar dugu Bilbon, udaletxe inguruan etxebizitza bat osatzeko. Zuriñe eta Ihintza. Tel.: 943 45 34 74/943 21 56 54.

• Logela bat behar dut etxe konpartitu batean. Ahal bada, Musakolan. Tel.: 909 44 41 54.

• Bi neska behar dira etxebizitza osatzeko Donostian. Tel.: 943 79 00 13.

• Neska bat behar da Donostiako Gros auzoan etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 89 62.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Garajea salgai Roneoko etxeetan, 1. solairuan. Tel.: 943 79 18 70.

• Garajea salgai Jose Luis Iñarra Pasealekuan. 700.000 pta. Tel.: 94379 27 68. Gaez deitu.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100m<sup>2</sup>ko bi solairuko toki salgai. Tel.: 943 79 07 24.

### 15. Errentan hartzeko

• Gazte talde batek toki bat alokatu nahi luke. Erdialdean eta merkea. Tel.: 943 79 55 48 (Mikel) 20:00etatik aurrera.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Andra euskalduna prest etxeko lanak egin eta umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 943 79 07 73.

• Neska arduratsua umeak zaintzeko prest. Interesatuek deitu 943 71 53 74 telefonora. Goizez, eguerdiz edo 20:00etatik aurrera.

• Emakume gaztea bulegoak, eskolak, etab... garbitzeko prest. Arratsaldeko orduetan. Tel.: 943 79 67 30. Deitu 20:30etatik aurrera.

• Esperientziadun emakumea prest orduka garbiketarak egiteko (atariak, dendak, etxeak...). Tel.: 943 79 60 18 (M<sup>a</sup> Karmen).

### 18. Eskaerak

• Filologian lizentziatutako irakasleak behar dira. Tel.: 943 76 06 87.

• Pizzeria batek zerbitzari bat behar du. Tel.: 943 79 11 25.

• Taberna baten sukaldean lan egiteko neska bat behar da. Tel.: 943 79 00 34.

• Esperientzia duen emakumea behar da senar-emazte helduak zaintzeko. Hobe euskaraz baleki. Tel.: 943 76 51 67 (20:00etatik aurrera).

• Tabernan lana egiteko pertsona bat behar da. Nahiago neska bada. Tel.: 943 79 79 26.

• Autoa duen pertsona bat behar da, umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 77 04 61.

• Emakume bat behar dugu etxeko lanak egiteko, orduka. Tel.: 943 79 13 63. Deitu 20:00etatik aurrera.

• Pertsona bat behar dut, bi astetik



behin, goizez umeekin egoteko, Aretxabaletan. Tel.: 943 79 79 29.

• Jatetxerako zerbitzaria behar da. Neska, euskalduna eta esperientziaduna. Tel.: 943 79 24 58.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Ingeniaritza Teknikoko 4. mailako ikasle batek matematika eta fisikako eskolak emango lituzke udan. Tel.: 943 79 51 68. Gorka (eguerdian deitu).

• First izeneko ingeles titulua ateratzeko talde bat osatu nahi dugu. Parte hartu nahi dutenek deitu 943 79 65 49 telefonora. Oskar.

• Ingeles eskolak ematen ditugu. Tel.: 943 79 24 59.

• Irakasle tituludunak eskola partikularak ematen ditu. Tel.: 943 77 17 42.

• Ingeles eskolak emango dira urriaren 1etik aurrera. Tel.: 943 79 18 70.

• Psikologoak laguntza emateko gertu. Tel.: 943 79 86 28.

• Gitarra eskolak eskaintzen dira, solfeorik gabe edo solfeorekin. Klasiak edo laguntzekoa. Merke. Tel.: 943 79 07 64.

• Eskola partikularak ematen ditut. Euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 36 93. Patricia.

### 21. Eskaerak

• Estatistikako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 79 12.

• Paleografia eta Diplomatikako eskolak jasoko nituzke. Tel.: 943 79 94 92. Pilar.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Derbi GPR Sport 75 cc salgai dago. Modu onean. TEL.: 943 79 67 50.

• Lada Niva 4x4, 1.700 injekzioa, SS-AX salgai. Urte eta erdi eta 200.000 pta extratan. Prezio interesgarria. Txakurrentzako gurdia oparitzen da. Tel.: 943 77 00 39.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Etxeko altzairuak saltzen ditut. Oso merke. Tel.: 930 67 33 87. Juan Antonio.

• Sofa-ohet bat salgai. Berria da. Prezio onean. Tel.: 943 79 03 59.

• Errepideko bizikleta saltzen dut, 15.000 pta. Tel.: 943 79 60 81.

• Errepideko bizikleta salgai. Karbonozko koadroa eta 55eko neurrikoa. Piezak Campagnolo markakoa dira. Merke. Tel.: 943 79 87 10 (21:00etatik aurrera).

• Komuneko altzari eta osagarriak salgai. Merke. Tel.: 943 79 19 99. Mariluz.

### 27. Erosi

• Bigarren eskuko zehar flauta lortu nahiko nuke. Saldu nahi baduzu, deitu telefono honetara: 943 79 54 07. Ines.

• Disko singleak eta LPak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77.

### 28. Trukatu

• Nire gitarra akustikoa, espainola batekin trukatu nuke. Tel.: 943 79 54 46 (Iñaki). Deitu bulego orduetan.

### 29. Eman

• Lau hilabeteko txakurkumeak oparitzen ditut. Tel.: 943 79 75 31. Asier (gauetz).

### 31. Galdu

• Irailaren 12an, larunbat gaueko 24:00etan Elorrixorajarjoan ginen autostopez eta poltsa beltz bat ahaztu genuen autoaren barruan, oroigarri garrantzitsuekin. Mesedez, Arrasateko Udaletxera eraman.

### 32. Aurkitu

• AH hizkidun bizkar zorro berde-laranja morea aurkitu dugu. Arrasate Press-en galdetu. Arantzazu.

# FAMILIA ETA GIZARTE HEZKUNTZARAKO ZENTRUA 98-99 IKASTARROAK • I. hiruhilabetea

Ordutegiak goizez, arratsaldez eta gauetz.

#### ALOR SOZIO-KULTURALA

- Kultura orokorra
- Euskara
- Oinarrizko ingelesa
- Hezkuntza pertsonala: Psikologia

#### LANBIDE HEZIKETA

- Enmarkazioa - Brikolajea
- Sukaldaritza - Gozogintza
- 3. adineko pertsonen senide eta zaintzaileentzako ikastaroa
- Patroi ebaketa - Jantzigintza
- Oihalak apainketan
- Estetika

#### ALOR ARTISTIKOA

- Dantzak
- Farfailagintza
- Hari lanak - Bainikak
- Tapiza eta makramea
- Marrazkigintza eta pintura
- Puntua eta gantxiloa
- Eskulanak
- Gitarra

#### OSASUN ALORRA


- Lasaitze masajea
- Gimnasia energetikoa
- Norberaren gorputz zainketa

**Ikasturte hasiera urriaren 5etik aurrera**

**Matrikulazio epea zabalik dago irailaren 30a arte**

Urriaren 1ean zotoz Guggenheimeraren gurekin Txinako erakusketa ikustera!  
Eman izena!!

**kutxa fundazioa fundación**



famili eta gizarte-hezkuntzarako zentruak  
centros de formación familiar y social

Santa Teresa, 12 • ARRASATE • Tel.: 943 79 56 40 / 943 79 04 59



# UDAZKENEKO IKASTAROAK



## JAKIEN ONTZIRATZEA ETA IZOZTEA

- Irailaren 23tik urriaren 28ra, asteazkenero
- Arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara edo 18:00etatik 20:00etara
- EKINen egoitzan (Pablo Uranga, 4-behea)
- Matrikula: 4.000 pta.

## PUNTUA, GURUTZ-PUNTUA, GANTXILOA

- Urriaren 6tik abenduaren 15era, asteartero
- Arratsaldeko 15:30etatik 17:30etara
- EKINen egoitzan (Pablo Uranga, 4-behea)
- Matrikula: 5.500 pta.

*Bi ikastaro eginez gero, prezio bereziak  
Bazkideek %5 merkeago  
Izenemateko dei lehenbailehen 943 77 12 28 telefonora (Onintza)*

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



ARRASATEKO UDALA  
Emakume Saila ■



# UDAZKENEKO IKASTAROAK

## Gesalibarren eta Garagartzan



## JAKIEN ONTZIRATZEA ETA IZOZTEA

- Irailaren 29tik azaroaren 3ra, asteartero
- Arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara edo 18:00etatik 20:00etara
- Gesalibarko Jentil-Ola elkartearen

## ESKULANAK

- Irailaren 21etik abenduaren 14ra, astelehenero
- Arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara
- Garagartzako Auzo Etxean



Antolatzailea:



Babeslea:



ARRASATEKO UDALA  
Emakume Saila ■




# Aurpegi berria: Maider Osa

Bi aste eskas egin ditu Marijo Deogracias kazetari antzuo-larrak *Berriak* aurkezten. Tarte labur horretan erakutsi du badakiela albistegi bat aurkezten, eta ganoraz gainera. Orain kazetaritza lanetara itzuliko da, horixe baitzen hasierako asmoa, baina kamera atzeko lanak egitera. Dagoeneko badu ordezkorik: Maider Osa, 20 urteko neska mondragoetarra.

Maider San Frantzisko Ikastolan eta Almenen ikasitakoa da. Gaur egun, ostera, kazetaritza ikasten ari da, Leioan. Aurten hirugarren kurtsoa egingo du. Egunerdiko kontratuarekin sartu da, *Arrasate Pressen* eta ATBn lan egiteko. Kazetari-tzari dagokionez, irratian du esperientziarik handiena, asteburuetan Euskadi Irratian ari baita praktikak egiten, albiste sailean.

Bertozalea dugu Maider. Ibilira da Patxi Goikolearen Bertso Eskolan. Plazan kantatu ez badu ere, gustuko du



bertso idatziak egitea. Ines eta Naiara bikoteak laster atearako duten maketan, esate baterako, bi kantu idatzi ditu. 16 urte zituela, bestalde, Bergarako Amodiozko Gutunen

Lehiaketa irabazi zuen, "Lekaike Batek Apaiz Bati" izeneko gutunarekin. Horrezaz gain, mendia du gustuko, lagunartea eta soina eta panderoa jotzea. Aire, aire!

## Teknikariak eta bekadunak hartzeko azterketa

Irailaren hasieratik eta urria bitartean, Arrasate Irratia "Kerizpean" saioa ematen ari da goizero. Bitartean, hala ere, teknikari eta bekadun berriak hartzeko deialdia egin dago.

Horrela, datorren ostegunean, hilak 24, kazetaritza lanak egingo duten bi kazetari eta teknikari lanetan arituko den bekaduna hartzeko azterketa egingo da. Azterketa horretan parte hartu nahi duten guztiek astelehena arte izango dute izena emateko epea.


Udaletxeko arduradunek adierazi digutenez, oso jende gutxi aurkezten da Mondragoekoa edo inguruko herrietakoa. Gehienak urrutikoak izaten dira.

Datorren ostegunean bertan, beraz, azterketak egin eta hartuko diren izenak jakin-go dira seguruenik. Dena ondo joanez gero, urriaren leian hasiko dira beharrez.

Gauzak ondo joan daitezten eta lanean etenik gerta ez dadin, urrian zehar Garikoitz Kortazar izango dute lankide.

## ■ ATBko programazioa


| LARUNBATA, 12                        | ASTELEHENA, 13                       | ASTEARTEA, 14                        | ASTEAZKENA, 15                       | OSTEGUNA, 16                         | OSTIRALA, 17                         |
|--------------------------------------|--------------------------------------|--------------------------------------|--------------------------------------|--------------------------------------|--------------------------------------|
| 20:00/20:30/21:00<br><b>Berriak.</b> | 20:00/20:30/21:00<br><b>Berriak.</b> | 20:00/20:30/21:00<br><b>Berriak.</b> | 20:00/20:30/21:00<br><b>Berriak.</b> | 20:00/20:30/21:00<br><b>Berriak.</b> | 20:00/20:30/21:00<br><b>Berriak.</b> |

  
**AZKARATE MORRAS  
PODOLOGIA  
KLINIKA**  
ORDUA ALDEZ AURRETIK  
Uribarri etorbidea, 5 behea  
ARRASATE • Tel.: 943 79 53 63

  
**LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE**  
Logopedia eta psikologia  
tratamendu kliniko eta  
hezitzaileak hañr eta  
helduentzako.  
Erdiko kale, 37 - behea  
Tel.: 943 79 79 46 • ARRASATE

**HIES  
EKIMENA**  
Astelehen, astearte  
eta ostiraletan  
5etatik 8etara.  
Tel.: 79 26 99





# 25

urte  
zituela  
esan  
zuen  
lehen

meza Anton Markaidek, 1962ko Andra Mari egunean, Arrasateko parrokia bete-bete zegoela. Ordukoa da argazki hau.

Itziarren bi urte egin eta gero, Venezuelara joan zen misiolari. Han zazpi urte egin zituen lanean eta musika korala sustatzen; hori zen bere zaletasunik handienetako bat. Venezuelatik bueltan, Psikologia ikasi zuen Madrilan. S. Frantzisko Xabier Ikastolan bederatzi urte egin zituen, bost zuzendari moduan eta lau psikologo bezala. Handik Donostiara joan zen. Hiriburuan 9 hilabete egin zituen S. Jose elizan, Amaran, 9 urte Aieten eta 5 urte Sagrada Familian, Amaran hau ere.

Irailaren 10ean hil zen, Donostian. Goian bego.

Argazkia eta informazioa:  
Begoña Markaide

... **LILUR** ...  
OIHALAK  
Denboraz prestatu  
Maritxurako jantzia  
Zerkaosteta, 5 - Behea • ARRASATE • Tel.: 943 - 79 89 72

**TTUKUN**  
Fotokopiak  
Liburu josteak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a  
Ferrerrias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

**JUBAR**  
ATEAK. S.L.®  
• BURDINAZKO ATEAK  
• ETA PERTSIANAK.  
• AUTOMATISMOAK.  
• KONPONKETAK.  
Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17



Urriaren hasieran irekiko dugu!

Emakumeentzako gimnasioa eta estetika-zentru mistoa.

300 m<sup>2</sup> eta talde profesionalena, zerbitzurik onena eskaintzeko.

Taldeak osatzen ari gara. Argibide gehiagorako eta izena emateko, hots egin 943 79 52 17 telefonora.



## EMAKUME-GIMNASIOA

- Aerobic (ibilitakoak, hasiberriak eta umeak)
- Mantenimendu-gimnasia
- Yoga
- Bizkarra zuzentzeko gimnasia
- Erditu aurreko eta ondoko gimnasia
- Aretoko dantzak
- Zerbitzu medikoa
- Masajea (fisioterapeuta batek emana)
- Makina aerobikoak

## ESTETIKA-ZENTRUA

1. Depilazioa argizari hotz eta beroarekin
2. Depilazio elektrikoa
3. Gorputz tratamenduak
  - Drenaje linfatikoa
  - Presoterapia (zirkulazioa)
  - Berrindartzailea
  - Mesoterapia (zelulitisaren aurkakoa)
  - Hidromasaje-bainuontzia
4. Aurpegi tratamendua
  - Azala garbitzea
  - Zimurren aurkakoa
  - Hidratazioa
  - Berrindartzailea
5. Solariuma
6. Makilaje iraunkorra
  - Ezpainen makilaje iraunkorra
  - Bekainen makilaje iraunkorra
7. Makilajea
8. Kontrol medikoa duten dietak
9. Barize tratamendua
10. Manikura
11. Pedikura
12. Liposukzioen kudeaketa eta kontrola (sendagileek beren zentruetan egiten dute)



## ASTEBURUETARAKO PROGRAMA LASAIGARRIAK

(LARUNBATAK ETA IGANDEAK)

- 1.** Dutxa eskoziarra  
Hidromasaje-bainuontzia  
Masaje lasaigarria

EGUN BATEKOA

- 2.** Dutxa eskoziarra  
Lurrun-bainuak  
Masaje lasaigarria  
Hidromasaje-bainuontzia  
Presoterapia  
Masaje lasaigarria

BI EGUNEKOA

- 3.** Dutxa eskoziarra  
Lurrun-bainuak  
Masaje lasaigarria  
Hidromasaje-bainuontzia  
Lokatzak  
Masaje lasaigarria

BI EGUNEKOA



**Teknologia eskubide bat da,  
ez da pribilegioa.**



Uste dugu ez duela zentzurik auto bat diseinatzeak, gutxi batzuen eskura egon behar bada. Horregatik geure erronka izan da teknologia, segurtasun eta erosotasun gorena duen autoa sortzea, baina mundu guztiaren eskura. Opel Astra berria. Teknologia eskubide bat delako, ez pribilegioa.

**Serieko ekipamendua:** ABS elektronikoa lau gurpiletara, lagunduriko direkzio elektrohidraulikoa, korrosioaren kontra 12 urteko bermea duen karrozeria galbanizatua, atzealdeko ardatza efektu direkzionalarekin, garaieran eta sakontasunean egoki daitekeen bolantea, gidatzailearen jarlekua garaieran egoki daitekeena, leihoak igotzeko sistema elektrikoa, itxigailu zentralizatua urrutiko agintearekin, tamaina handiko air bag-a gidatzailearentzat, lapurretaren kontrako geldiarazle elektrikoa, funtzio askotarako pantaila:



Motor hauek daude eskuragarri: 1.6tik 2.0 16v.-ra; turbodieselelan 1.7 eta 2.0 DI 16v. Karrozeriak 3,5 atetan eta Caravan. Bukaera mailak: Club, Comfort, Elegance eta Sportive.

**TALLERES OLA**

**OPEL**   
INGENIARITZA ALEMANA ZUREA

Olabarrena auzoa, z/g. Tels.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn

**TAKOLO AUTOAK, S.L.**

Araba Etorbidea, 3.(Eskatu pabiloia). Tel.: 943 79 05 86